

DEKRETUAREN ZIRRIBORROA, lehendakariarena, zeinaren bidez bigarren aldiz aldatzen baita honako dekretu hau: 33/2021 Dekretua, uztailaren 7koa, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriak eguneratu eta zehaztekoa.

Lehendakariaren uztailaren 7ko 33/2021 Dekretuaren bidez, COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriei buruzko ekainaren 24ko 2/2021 Legeak aurrez zehaztutako alerta-mailaren arabera aplikatu beharreko prebentzio-neurri espezifikoak eguneratu eta zehaztu ziren.

Helburua da giza portaera indibidual eta kolektiboko tresnei eta irtenbideei eustea, eta horrek agintarien kontrola eta esku-hartzea eskatzen du. Izan ere, tradizionalki, tresna eta konponbide horiek antolamendu juridikotik esplizituki gaitu izan dira mota guztietako alderdietan, Osasun Publikoaren arloko Neurri Bereziei buruzko apirilaren 14ko 3/1986 Lege Organikoan egindako hasierako aurreikuspenetik hasita; beraz, beste behin ere hainbat neurritan eragiten da hedapen birikoari aurre egiteko, eta erabilgarria izatea aurreikusten da, hala egiaztatzen baitu gure inguruko herrialdeek sistematikoki neurri horietara edo antzekoetara jo izanak; hori guztia Osasunaren Mundu Erakundeak eta nazioarteko beste erakunde batzuek adierazitakoarekin bat etorritz.

Estatuko zein Autonomia Erkidegoko legeria arruntak eskaintzen duen arau-euskarriaz gain, Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluan kudeatu diren osasun publikoaren arloko erabakiak eta jarduera koordinatuak integratzen dira.

Hartzen diren neurriak bat datoz egiten den ebaluazio epidemiologiko iraunkorarekin, eta, beraz, justifikatuta daude eta proportzionalak eta egokiak dira lortu nahi den helburu nagusirako –alegia, prebentziorako–, betiere Legean aurreikusitako eta aurrez zehaztutako esparruan. Neurriak aplikatzeari dagokionez, egungo egoera 3. alerta-mailan sailkatzen da.

Maskarak nahitaez erabiltzeari buruz indarrean dauden neurriak indartu nahi dira, horien hedaduraren irismena argitze aldera; kontrolik gabeko pertsonak pilotzeko arrisku handiagoa duten ekitaldi sozial handiak egitearekin zerikusia duten neurriei buruz, eta 2/2021 Legearen 16. artikulua kutsatzeen arrastoari eta trazabilitateari buruz, eta Lege beraren 23. artikulua Isolamendu eta berrogeialdi pertsonalei buruz ezartzen dituen betebeharrei buruz. Hori guztia, COVID-19 pandemiaren epidemia-agerraldiek eragindako pertsonen egoerak kontrolatzen, arriskuak prebenitzen eta osasuna babesten aurrera egiteko.

Legearen 20.1 artikuluekin bat etorritz, herritarrei dei egiten zaie autolimitaziorako eta autoerantzukizunerako, gaixotasuna zabaltzeko arriskurik ez sortzeko neurriak betetzeari dagokionez.

Euskadiko lehendakariari dagokio dekretu hau onartzea, hala xedatzen baitu COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriei buruzko ekainaren 24ko 2/2021 Legeak 8.1 artikuluan. Beraz, lege horretan eta oro har aplikatu beharreko gainerakoetan ezarritakoaren arabera, honako hau,

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.-

Uztailaren 7ko 33/2021 Dekretuaren 1. artikulua beste era batera idaztea. Honela geratuko da:

“COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriei buruzko ekainaren 24ko 2/2021 Legearen 4. artikuluan aurreikusitako osasun-larrialdia deklaratura eta indarrean dago, eta dekretu honetan zehazten diren neurriak aplikatu behar dira, egindako ebaluazio epidemiologikoaren arabera, eta 3. alerta-mailarako aurreikusitako neurrien lege-esparrua kontuan hartuta, lege horren eragin zuzeneko eta osagarriko adierazleentzako multzoa kontuan hartuta, 7. artikulua arabera”.

Bigarrena.-

Uztailaren 7ko 33/2021 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritako neurri orokorren eta prebentzio-neurrien irismena aldatzea, eta artikulua horren 2. apartatua honela idatzita geratzen da:

“2.- COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriei buruzko ekainaren 24ko 2/2021 Legearen 20.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, maskara aire zabaleko espazioetan erabiltzea nahitaezkoa izango da, betiere pertsonen arteko gutxienezko 1,5 metroko distantzia etengabe mantentzea ezinezkoa bada. Ondorioz, maskara erabili beharra mota guztietako hiriguneetara hedatzen da, hala nola udalerrietako alde zaharretara, merkataritza-guneetara eta dendetara, merkatuetara, azoka txikietara edo ostalaritza-establezimenduak dauden guneetara, bai eta itsas espazio eta pasealeku guztietan, haur-parkeetan, espaloietan, oinezkoentzako pasabideetan, plazetan edo jendea biltzen den kaleetan ere.

Ez da erabili behar ingurune naturalean, baldin eta ez bada jende pilaketarik edo bizikiderik gabeko pertsonetarako konkurrentziarik gertatzen.

Ostalaritzako eta jatetxeetako establezimendu eta zerbitzuetan, maskara erabiltzeko betebeharra jateko edo edateko unean bakarrik kentzen da. Bestela, nahitaez erabili behar dira uneoro, bai barrualdeetan, bai terrazetan.

Edozein kirol-jardueratan ez da nahitaezkoa izango espazio naturaletan, oinezkorik gabeko hiri-ingurune periferikoetan, igerilekuetan, lehiaketa profesional edo erdi-profesionalean murgildutako taldeen entrenamenduetan eta lehiaketetan eta kanpoko jarduera fisiko biziko ezohiko uneetan

Hondartzetan eta igerilekuetan, bainua hartzen ari garen bitartean eta eremu zehatz batean bagaude, ez da beharrezkoa izango maskara erabiltzea, betiere erabiltzaileen arteko segurtasun-tartea errespetatu badaiteke. Hondartzetan eta igerilekuetan joan-etorriak egiteko eta paseatzeko, maskara erabili beharko da.

Sei urtetik gorakoek nahitaez erabili behar dituzte maskarak, edozein garraibide erabiltzen denean, bidaia hasten denetik amaitzen den arte, salbuespen-kasu legeletan izan ezik. Ez da exijituko maskara erabiltzea garraio pribatuan, bidaiariak etxebizitza berean bizi badira. Garraio-profesionalak maskara eraman beharko du zerbitzuan dagoen bitartean, bere lan-eremua gelaxka batean edo babes-manpara batez mugatutako gela batean publikotik bereizita ez badago.”

Hirugarrena.-

a) Uztailaren 7ko 33/2021 Dekretuaren 3. artikuluan ezarritako neurri espezifikoaren irismena aldatzea, eta artikuluko horren 1. apartatua honela idatzita geratzen da:

“1.– Merkataritza-, gizarte- eta kultura-jarduera guztietarako ezarrita dagoen ixteko muga-ordutegia 01:00ak arte ezartzen da, hargatik eragotzi gabe bakoitzari dagokion ordutegira doitzea, goizago bada, hala agintzen duen ordutegi-arau arrunten bat badago. Irekitzeko ordutegia ohiko arauen arabera izango da.

Edozein motatako garraio publikoek eta EAEko hiru Lurralde Historikoetako bakoitzaren eremu txikiagokoek, gehienez 02:00etan irten beharko dute.”

b) Uztailaren 7ko 33/2021 Dekretuaren 3. artikuluan ezarritako neurri espezifikoaren irismena aldatzea, eta artikuluko horren 2. apartatua honela idatzita geratzen da:

“2.– 2021eko uztailaren 26ko 00:00etatik aurrera, jardueretan baimendutako gehieneko edukiera ehuneko 35ekoa izango da lokal eta instalazio guztietarako, muga espezifikoaren bat aplikatu behar duten lokal eta instalazioetarako izan ezik. Muga hori ez zaie aplikatuko aldeztatik eta indarrean dagoen aurreko araudiaren arabera edukiera handiagoa kontratatuta edo erreserbatuta duten zerbitzuei edo jarduerari. Lokal eta instalazio guztiak etengabe aireztatu beharko dira. Garraibideek berariazko araudian baimendutako edukiera osatu ahal izango dute.”

c) Uztailaren 7ko 33/2021 Dekretuaren 3. artikuluan ezarritako neurri espezifikoaren irismena aldatzea, eta artikuluko horren 3. apartatua honela idatzita geratzen da:

“3.– 2021eko uztailaren 26ko 00:00etatik aurrera, oro har, edozein motatako gizarte-, kultura- edo kirol-ekitaldientzako esparruetan gehienez ere 400 pertsona bildu ahal izango dira barnealdeetan eta 600 pertsona kanpoan. Berariaz:

– 1.600 eta 5.000 lagun arteko edukiera duten esparruetan, gehienez 600 pertsona egon daitezke barruan, eta 800 kanpoan.

– 5.000 lagun arteko edukiera duten esparruetan, ez da gehieneko edukieraren %20 gaindituko. Ahal den guztietan, 1.000 pertsona baino gutxiagoko eremu independenteak ezarriko dira, sarbide eta pasabide independentetako guneekin.

Muga horiek ez zaizkie aplikatuko alde zurretik eta indarrean dagoen aurreko araudiaren arabera edukiera handiagoa kontratatuta duten ekitaldiei.

– Aire zabalean egiten diren ekitaldietan, hiri-inguruneetan nahiz ingurune naturalean izan, jendea jarduera horietara joan ahal izateko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak ezarritako jarraibideak errespetatu beharko dituzte antolatzaileek.

– Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari ahalmena ematen zaio protokoloak ezar dituzan, beste edukiera batzuk dituzten instalazioak erabili ahal izateko, osasun publikoko helburuetarako proba pilotuak egiteko.

– COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriei buruzko ekainaren 24ko 2/2021 Legearen 30. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, antolatzaile zehatz, publiko edo pribatu batek kontrolatzen ez dituen pertsonen noizbehinkako edo ustekabeko pilaketak gertatzen diren ekitaldi sozialetan, zorrozki eta nahitaez bete beharko da pertsonen arteko 1,5 metroko distantziari eustea bai eta aglomerazioa gertatzen ari denean 4 metro koadroko pertsona baten gehieneko edukiera ere. Nolanahi ere, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak ezartzen dituen jarraibide eta gida guztiak errespetatu beharko dira, jendearen egonaldia eta asistentzia antolatzeko, transmisio birikoaren arriskua saihesteko moduan.”

c) Uztailaren 7ko 33/2021 Dekretuaren 3. artikuluan ezarritako neurri espezifikoaren irismena aldatzea, eta artikuluko horren 4. apartatua honela idatzita geratzen da:

“4.– Ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduen barrualdeetan, edukieraren ehuneko 35eko muga ezartzen da, baita barran edo zutik kontsumitzeko debekua ere. Zerbitzua antolatzeko, barrualdeetan eta terrazetan, gehienez sei pertsona izan daitezke mahai edo mahai-talde bakoitzeko, bizikideen kasuan izan ezik. Ezin izango dira bezero gehiago elkartu ez lau lagunentzako mahaietan, ez sei lagunentzako mahaietan ere.”

Laugarrena.-

Beste artikuluko bat, laugarrena, gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

4. artikulua.– Osasun-erantzukizuneko betebeharrak

1.– COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriei buruzko ekainaren 24ko 2/2021 Legearen 16.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, kutsatutako pertsonak eta haien kontaktua izan dutenak behartuta daude kutsadurak arakatzen eta horien trazabilitatea egiten laguntzera, eta, beraz, herritarrei eskatzen zaie jarraipenaren arduradunek zuzendutako deien arretan zorrotasunez jokatzera, eta eskatutako informazio guztia ahalik eta azkarren eta egiazkotasunik handienarekin ematea.

2.– COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriei buruzko ekainaren 24ko 2/2021 Legearen 23. artikuluan xedatutakoaren arabera, epidemia-agerraldiek kaltetutako pertsonak konfinatzeko betebeharrak pertsonala dute, eta, horren ondorioz, isolamendu-betebeharrak zorrotz bete beharko dituzte, beste pertsona batzuekin lekualdatzeko edo aurrez aurre erlazionatzeko aukerarik gabe, bai eta berrogeialdiak betetzeko kutsatu izanaren susmoa duten beste pertsona edo pertsona-talde guztiei dagokienez. Horiek guztiek osasun-agintarien edo -zerbitzuen jarraibideak bete beharko dituzte, indarrean dauden protokoloen eta kasu bakoitzaren egoera zehatzaren arabera.

Bosgarrena.-

Beste artikulua bat, laugarrena, gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“5. artikulua.– Gizalegezko deiak

COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriei buruzko ekainaren 24ko 2/2021 Legearen 20.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, herritarrei, beren autoerantzukizunean oinarrituta, autolimitazio boluntarioa eskatzen zaie, honako neurri hauek aplikatzeko:

– Gaueko mugikortasuna mugatzea, bereziki, COVID kasuengatik 14 eguneko intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 150etik gora duten udalerrietan, 01:00etatik 06:00etara bitarteko ordutegian.

– Pertsonen taldeak mugatzea, bereziki, COVID kasuengatik 14 eguneko intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 150etik gora duten udalerrietan, gehienez ere sei pertsonatara, bizikideak salbu.

– Autokonfinamendua eta autoisolamendu pertsonala COVID kutsaduraren lehen sintomak izan bezain laster, eta, hala badagokio, dagozkion osasun-zerbitzuei komunikatzea.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Dekretu honetan aipatutako neurrien jarraipena eta etengabeko ebaluazioa egingo da, egoera epidemiologikoaren bilakaerara egokitzen direla bermatzeko.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den unetik aurrera izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Dekretu honetan xedatutakoaren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritik Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa

arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. artikuluan
xedatutakoarekin.